

Eref.- FMR / Legelari aholkularia

Proposamena: Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza

GAIA- ERABAKI-PROPOSAMENA, MEDIKU ETA TERAPEUTA OKUPAZIONALEN KATEGORIETARAKO 2020KO ETA 2021EKO LAN-ESKAINNTZA PUBLIKO ARRUNTEI DAGOZKIEN HAUTAKETA-PROBEN DEIALDIAK ONARTZEARI BURUZKOA.

IKUSIZ- 2020-12-30ean eta 2021-12-23an, Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak Foru Erakundearen 2020. eta 2021. urteetarako lan-eskaintza publikoak onartzea xedatu zuen; eskaintza horiek 2020ko abenduaren 31ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (251. zk.) – 2021eko urtarrilaren 15eko BAO, 9. zk. – eta 2021eko abenduaren 30eko BAO (250. zk.) argitaratu ziren, hurrenez hurren. Era berean, 2020ko eta 2021eko Enplegu Publikoaren Eskaintzetako zenbait plaza baliogabetzea xedatu zen (2022ko maiatzaren 30eko BAO, 102. zk.). Eskaintza horietan, besteak beste, medikuen bi (2) plaza eta terapeuta okupazionalen hiru (3) plaza jasotzen dira.

Deialdi horiek GUFEn ordezkariak duten sindikatuekin negoziatu dira, erakunde honetako negoziatio-mahaiak uztailaren 12an, irailaren 13an, azaroaren 2an eta azaroaren 29an egindako bileretan. Bilera horiek negoziatio-mahaiaren zenbaki ordinalen arabera izapidetutako aktei dagozkie. 2023ko 6, 7, 8 eta 9.

OINARRIA- Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Estatutuak aldatzeari buruzko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauaren 5. artikuluko 6. idatz-zatian ezarritakoaren arabera, GUFEn Gobernu Batzordeari dagokio, besteak beste, bere langileak hautatzeko proben oinarriak onartzea.

Ondorioz, sinatzen duenak Gobernu Batzordeari aurkezten dio honako

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehenengoa.– Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Eskaintzekin bat etorriz (eskaintza horiek Gobernu Batzordearen 2020-12-30eko eta 2021-12-23ko erabakien bidez onartu ziren), dagozkien eranskinetan zerrendatzen diren mediku eta terapeuta okupazionalen lanpostuak betetzeko hautaketa-probetarako deialdia xedatzea.

Bigarrena.– Deialdi horiek arautuko dituzten oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea. Oinarri horiek, jasota gera daitezten, eranskin gisa gehitu zaizkio erabaki honi.

Hirugarrena.– Oinarriak osorik argitaratzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean –laburbilduta–, GUFEn iragarki-taulan eta web-orrian.



Laugarrena.- GUFeko gerentea gaitzea, deialdi hau izapidetzeko behar diren ebazpen guztiak har ditzan.

Bilbon, 2023ko abenduaren 14an
ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARIA


Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

GERENTEA


Sin.: David Latxaga Ugartemendia